



consumo2000

www.eke-fce.com

Editada por la Federación de Consumidores de Euskadi
Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa argitaratua

12

Aurkibidea

Bilbao: mahaitxoak eta terrazak bide publikoan



5



Ibilgailuak konpontzeko tailerrak

6

Kontsumitzaileen defentsa juridikoa

8

Bizitza-aseguruen erregistroa



8



Etxebizitei buruzko aholkularitza

9

Eguzkitan izan beharreko prebentzioa

Zelan erabili eguzkitarako babesa

- Belzteko krema eguzkitan jarri baino 30 minutu lehenago eman behar da.
- Bainatu ostean, eguzkitarako babesa berriro aplikatu behar da.
- Eguzkitan gauden lehenengo egunetan, normala baino indize handiagoa krema eman behar da.
- Eguzkitarako babesa egun estalietan ere erabili behar da.
- Gorputz-atalik delikatu edo sentikorrenak hartu behar dira kontuan: sorbaldak, oinbularrak, buruko soilguneak...
- Umeekin kontu handiz ibili behar da. Hori dela eta, komenigarria da indize altuko edo pantaila osoko eguzkitarako babesa erabiltzea.

(Jarraitu) ▶

Udako oporrak



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA
Merkataritza, Kontsumo eta Industria
Segurtasuneko Saibilburuordetza
Kontsumo eta Industria Segurtasuneko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO
Viceconsejería de Comercio, Consumo y
Seguridad Industrial
Dirección de Consumo y Seguridad
Industrial



Federación de Consumidores de Euskadi

Juan de Ajuriaguerra 9 - 7º
48009 BILBAO
Tel: 94 424 92 10. Fax: 94 424 64 20
e-mail: eke@arrakis.es

Eguzkitan...

- Umeak modu berezian zaindu behar dira, euren azala askoz ere sentikorragoa delako eta helduek baino erresistentzia txikiagoa dutelako beroarekiko. Ez da komeni 3 urtetik beherako umeak eguzkitan jartzea.
- Kasu berezi batzuetan (haurdunaldia, familiako aurrekarietan minbizi kasuak izatea, larruazaleko patologia), eguzkiarekiko kontaktua saihestu edo babes handiko produktuak eman behar dira.
- Botikak hartuz gero, eguzkitan jarri baino lehen, medikuari galdetu, hori egiteak azalean erreakzioren bat sortuko ote duen jakiteko.
- Berehala kontsultatu espezialista batekin, azalean kolore aldaketaren bat eman dela ikusiz gero edo oreztak zein orbanak agertu badira.
- Ez erabili orbanak sor ditzaketen desodorante, kolonia eta antzekorik.
- Ez da komeni eguzkitan egotea 12:00etatik 16:00etara bitartean.
- Denbora luzez eguzkitan egoteko asmoa dugunean, komenigarria da azala arropa arinarekin babestea eta baliabide fisikoak erabiltzea (kapelak eta abar).

Eguzkitan egoteko, garrantzitsua da azal mota bakoitza ezagutzea eta produktu egokia aukeratzea.

EGUZKITAN JARTZEAN	ZELAKOA ZARA?	BABES INDIZEA
Arin erretzen zara. Erredurak mingarriak izaten dira eta ez duzu kolore askorik hartzen.	Oso azal argiko pertsona. Ile gorrixka eta begi argiak.	30etik 50era
Apur bat erretzen zara eta kolore apur bat hartzen duzu.	Azal argiko pertsona. Gaztaina koloreko ilea eta begiak.	15etik 30era
Oso arin gorritzen zara eta erraz hartzen duzu kolorea. Azala segituan iluntzen zaizu.	Azal zuri edo beltzaraneko pertsona. Ile iluna eta gaztaina koloreko begiak.	6tik 15era
Erraz eta intentsitate handiz jartzen zara beltzaran.	Azal iluneko pertsona. Gaztaina kolore iluneko ilea eta begiak.	4tik 6ra

Udako oporrak

Belzteko kremen kontserbazioa

Eguzkitarako babesek urtebete inguru irauten dute. Belzteko krema erabiltzean, kolore, ehundura edo usain aldaketaren bat nabaritzen bada, bota egin behar da. Izan ere, bestela, ez du bere funtzioa beteko eta azalean erreakzioak ere sor ditzake. Bestela, aurreko urtekoa izanda ere, lasai erabili daiteke.

(Jarraitu) 

Eguzkitako betaurrekoen aukeraketa

Graduatu gabeko eguzkitako betaurrekoak ez dira modako apaingarri soilak, ezpada begiak babesteko tresna optikoa. Bere funtzioa eguzkiaren erradiazioetatik, hautsetik eta haizetik babestea da.

Eguzkitako betaurrekoak baimendutako dendetan erosi behar dira, babes-iragazkirik egokienari buruzko aholkua emango diguten adituen laguntzapean.

Graduatu gabeko eguzkitako betaurreko on batzuek bete behar dituzten baldintzak:

- Europar adostasunaren CE marka, kalitatearen eta kontrolaren bermea izateko.
- Izpi ultramoreen aurkako babes mailarik handiena.
- Graduazio eza.
- Fabrikatzailearen edo hornitzailearen informazio-liburuxka eta etiketa, betaurrekoak saltzen diren estatuko hizkuntza ofizialetan. Informazio-liburuxkak puntu hauei buruzko erreferentzia egin behar du:
 - Europar Batasuneko fabrikatzaile edo hornitzailea.
 - Erabileraren ezaugarriak; hau da: ze egoeratarako diren egokiak.
 - Argiaren eta erradiazio ultramoreen aurkako babes maila.
 - Arriskuei buruzko ohartarazpena eta erabileraren murrizketak.
 - Betaurrekoak garbitu eta mantentzeko arauak.

Arriskuak:

CE kalitate-markarik gabeko eguzkitako betaurrekoek zenbait arrisku izan ditzakete:

- Gutxi iraun dezakete, materialak kalitate txarrekoak izateagatik.
- Begietan gaixotasunak sor ditzakete. Esate baterako, konjuntibitisa; eta, horren ondorioz, fotofobia, negar-jarioa eta begia gorritzea.
- Iragazki ultramorearen faltak kataratak sor ditzake epe luzera.
- Lenteen kalitate txarrak zorabioak, ikusmen bikoitza, buruko mina eta beste sintoma batzuk sor ditzake. Sintoma horiek betaurrekoak kendu eta segituan desagertzen dira.



(Jarraitu) ▶

Gomendioak:

- Diplomaturako optikari batengana joan.
- Lente ilun batek ez du babes maila handiagorik bermatzen.
- Pertsona bakoitzak argiarekiko sentikortasun desberdina dauka. Denok ez ditugu betaurreko mota berberak behar.
- Eguzkitako betaurreko guztiak dira gidatzeko egokiak, baina 4. iragazkia dutenak ez. Ez erabili eguzkitako betaurrekorik gaez gidatzeko.
- Kolore horiek ez dituzte eguzkiaren erradiazioak iragazten: argitasun urriko egoeretan ikusmena hobetzen dute.
- Kontuan izan ze egoeratan erabiliko dituzun betaurrekoak (hiria, itsasoa, mendia eta abar).
- Eskatu izpi ultramoreen aurkako babes osoa.

Iragazkiaren Kategoria	Izena	Erabilera	Murrizketa
0	Oso lente argiak	Barrurako edo zero estalirako	Bat ere ez
1	Apur bat koloreztatutako lenteak	Eguzki-argitasun apur bat (hiria)	Ez dute balio gaez gidatzeko
2	Erdizka koloreztatutako lenteak	Eguzki-argitasun ertaina (txirringularitza)	
3	Oso lente koloreztatuak	Eguzki-argitasun handia (hondartza eta mendia)	
4	Oso lente ilunak	Muturreko argitasuna (eskia eta goi-mendia)	Ez dute balio gidatzeko



Udako
oporrak


Bilbao: mahaitxoak eta terrazak bide publikoan

Eguraldi ona heltzean, hiriko kale eta plazetan, ostalaritzako lokalen titularrek jarritako terrazak agertzen hasten dira han eta hemen; beraien enpresa-jardueraren luzapen legez ageri dira, eta elementu hauei esker, hiriaz goza daiteke edo, beste barik, une atsegina igaro lagunekin solasean, zerbait kontsumitzen den bitartean. Hala ere, eztabaidak eta kexak ere eragiten dituzte hiritarren artean, kasu gehienetan elementuok jartzeko izaten den modu kaotikoa dela eta bereziki.

Aipatutako terrazaren instalazioa arautzen duen Udal Ordenantza bat dago. Terrazak jartzeko, baldintza tekniko batzuk bete behar dira, hala nola, bideen zabalera, gutxieneko distantziak hormatik, aparkatutako ibilgailuetatik jendea irteteko behar den distantzia, bai eta aipatutako terrazak behar den moduan instalatzea bermatu beharko lukeen publizitatea debekatzen duten irizpide estetikoak ere.

Zoritxarrez, araudia dagoela egia den arren, ez da gehiegi betetzen, izan ere, terrazetako askok, hiritarrek aurkeztutako kexen ondorioz Elkartetik egin den azterketa batek egiaztatu duenez, behin eta berriro urratzen dituzte ordenantzak hizpide dituen artikuluetan jasotako edukiak. Mahaiak eta aulkiak establezimenduaren hormaren ondoan pilatzen dira, eta, batzuetan, zoruan jarritako ainguraleku finkoekin, lapurretak saihesteko. Hori arriskutsua da itsuentzat edo minusbaliotasunen bat duten pertsonentzat, oztopo horiek gairitu behar izaten baitituzte nahitaez. Gutxieneko distantziak betetzen ez dituzten espaloietan terrazak jartzen dira oraindik ere; zenbaitean, aparkatutako ibilgailuetako erabiltzaileek ezin izaten dute autotik irten, ezin dituztelako ireki atea; gainera, ez dago eremua mugatzen duen eta itsuei oztopoa identifikatzen laguntzen dien alboko babesik (7. artikulua), eta itxiera-ordutegiari, publizitateari... erreferentzia egiten dioten beste batzuk.

Bizkaiko Kontsumitzaileen Elkartetik, uste dugu terrazak aisialdi eta negoziarako elementu garrant-



zitsua direla eta hiriari zerbitzu ematen diotela, baina, hain zuzen ere horrexegatik, Udala, Hirigintza eta Ingurumen sailatik, zorrotzagoa izan behar da ordenantza betearazten. Horretarako, ikuskapenak bultzatu behar ditu, hiriaren irudiaren kontra doazen eta bizikidetzaz zailtzen duten elementuen instalazioa saihesteko, izan ere, elementu horiek arrisku egoerak sortzen dituzte hiritarrentzat eta, bereziki, dituzten ezaugarriengatik mugitzeko zailtasunak dituzten taldeentzat. Gaur egun bizi dugun permitibitate edo utzikeria egoerak ez dio inori mesede egiten; bidegabekeria da hiritarrentzat eta ordenantza betetzeko ahalegina egiten duten profesionalentzat.

**BIZKAIKO KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN VIZCAINA DE CONSUMIDORES B.K.E.**

Ibilgailuak konpontzeko tailerrak

- Tailer guztiek izan behar dute, jendeak ikusteko moduko leku batean, informazio hau:
 - Lanordu bakoitzaren prezioa eta egiten dituen bestelako zerbitzu berezien prezioak (era guztietako karga edo zergak barne hartuko dituzte, karga horiek bereiztuz).
 - Honakoa zehaztuko duten testuak izan behar dituzte:
 - Erabiltzailearen eskubidea eskatzen dituen konponketa edo zerbitzuen aurrekontu idatzia izatera.
 - 3 hilabete edo 2.000 km-ko bermea (industria-ibilgailuen kasuan izan ezik, kasu horretan epea 15 egunekoa izango baita).
 - Erreklamazio orriak eskuragarri daudela dioena.
 - Zerbitzu publikoa emateko ordutegia.
- Markako tailer ofizialek konponketetan erabiltzen dituzten piezen katalogo eta tarifa eguneratuak izango dituzte jendearen esku. Era berean, lan-denboren taulak eta alde zehatzak zehaztapena izan dizaketelarik lanak baloratzeko sistema ere izango dituzte.
- Tailer guztiek plaka bereizgarri bat jarri behar dute, sinbolo desberdinekin, tailer motaren edo ematen dituen zerbitzuen arabera.
 - Sinboloek lau jarduerak adierazten dituzte:
 - Giltza ingelesa: mekanika.
 - Gezi hautsia: elektrizitatea.
 - Mailua: karrozeria.
 - Pintatzeko pistola: pintura.
 - Plakaren erdialdean motozikleta bat ageri bada, motozikletak konpontzen direla esan nahi du.
 - Plakaren beheko aldean probintziako siglak eta tailerren erregistro berezian daukan inskripzio-zenbakia jartzen dira.
- Erabiltzaile guztiak daukate eskubidea konponketen AURREKONTU idatzi eta



zehatza izateko. Aurrekontua hamabi lanegunetan izango da baliozkoa. Aurrekontuak honakoak jaso behar ditu: erabiltzailearen datuak, ibilgailuaren datuak, konponketa bakoitzaren prezio banakatuak, zerbitzu-ematearen sinadura eta eguna, entregatzeko aurreikusitako eguna, aurrekontua zein epean izango den baliozkoa, eta erabiltzailearen onarpenaren eguna eta sinadura. Tailerrak ezin izango du inolako lanik egin, ez badu jaso idatziz erabiltzailearen adostasuna, edo, bestela, aurrekontua egiteari uko egin izana, idatziz.

Erabiltzaileak ez badu aurrekontua onartzen, entregatu zen baldintza berdintsuetan entregatu behar da ibilgailua.

Behin konponketa hasita, aurrekontuan aurreikusi ez diren matxurak edo kalteak agertzen badira, tailerrak bezeroari jakinarazi behar dio, zenbatekoa adieraziz, bezeroak berariazko baimena eman dezan.

- Tailer guztiek nahitaez entregatu behar dute FAKTURA idatzita, sinatuta eta zigilatuta. Bertan, zehatz-mehatz jaso behar dira erabilitako pieza edo elementu guztiak, egindako lanak, erabilitako orduak, eta sortutako era guztietako karguak.

Ez fakturan ez bestelako agiritan (aurrekontua, ordainagiria, etab.) ezin izango da sartu erabiltzaileen eskubideei eragiten dien klausularik, 1,5 mm-tik beherako letra txikian.

- Tailerrek egindako konponketa edo instalazio guztiek hiru hilabeteko edo ibilitako 2.000 km-ko bermea izango dute; ibilgailu industrialen kasuan, berriz, bermea 15 egunekoa edo ibilitako 2.000 km-koa izango da. Berme-aldiak ibilgailua entregatzen den egunetik hasten dira zenbatzen, eta baliozkoak izango dira, baldin eta ibilgailua ez badute hirugarrenek manipulatu edo konpontzen.

Bermea erabatekoa izango da, materialak eta eskulana barne, bai eta izan daitezkeen gastuak, garraioa, langile-joan-etorriak... ere.

- Ordezko piezak berriak eta ibilgailurako egokiak izan behar dira; dena dela, jabeak berariaz baimena eman ahal izango du bigarren eskuko piezak erabiltzeko eta tailerrak bermatu egin beharko du behar bezala funtzionatzen duela. Era berean, premia justifikatua dagoenean edo dagoeneko fabrikatzen ez diren elementuen kasuan ere salbuespen hori eman daiteke.
- Tailerraren betebeharra da: ordezkatuak izan diren piezak, elementuak edo multzoak bezeroari entregatzea, erabiltzaileak berariaz horri uko egiten dionean izan ezik, eta jendearen esku edukitzea konponketan erabiltako ordezko piezen jatorria egiaztatzen duen justifikazio dokumentala.
- Debehatuta dago:
 - Ibilgailuen araudian baimentzen ez diren piezak, elementuak edo multzoak instalatzea.
 - Fabrikatzailearen marka ez daukaten piezak, elementuak edo multzoak instalatzea.
 - Beharrezkoa ez den piezen ordezkapena, horrek kostuaren gehikuntza dakarkionean erabiltzaileari edo ibilgailuaren balizko degradazioa dakarrenean.
- Ibilgailua tailerrean geratzen den kasu guztietan, ibilgailua utzi izanaren frogagiria entregatu behar da. Tailerrak eta erabiltzaileak sinatutako aurrekontu bat badago, aurrekontu horrek balioko du frogagiri legez.
- Erabiltzaileak edozein unetan atera ahal izango du ibilgailua eta enkargatutako konponketari uko egin, betiere, egindako lanen zenbatekoa ordainduta.
- Egonaldi-gastuak kobratu ahal izango dira, jabeak hiru lanegun baino gehiago ematen baditu ibilgailua hartu baino lehen, konponketa jakinarazi denetik zenbatzen hasita. Ibilgailua tailerraren zaintzapeko lokaletan egon denean baino ezin izango da kobratu.



Kontsumitzaileen defentsa juridikoa

Eusko Jaurlaritzak epaiketetan kontsumitzaileen doaneko defentsa adostu du Kontsumitzaileen Erakundeekin. Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak akordio bat sinatu berri du Euskadiko kontsumitzaileen elkarteekin. Akordio horren arabera, elkarteek doan egingo dute defentsa Justizia Epaitegien aurrean, 900,00 E-tik beherako epaiketetan. Akordioan ezarritakoarekin bat etorritz, Eusko Jaurlaritzak 150,00 eta 200,00 euro bitarteko laguntzekin lagunduko du diruz ordezkari hori, erreklamaturako zenbatekoaren arabera.

Defentsa-bide honetara jo ahal izateko, kontsumitzailea elkar-teko kidea izan behar da edo erakunde hauetako bateko kide egin behar da. Era berean, azken horrek erabakiko du noiz joan behar den epaiketara edo noiz ez, erreklamazioak emandako datuak baloratu ondoren.

Zenbateko txikiak eskatzeko prozedura mota hauetan, deman-dak aurkez daitezke epaitegien aurrean, abokatu baten edo pro-kuradore baten laguntza izan gabe; dena dela, bide judizialera jotzea erabaki denean, komenigarriena kontsumitzaileen elkar-te baten bitartez egitea da. Izan ere, elkarteek kontsumitzaileen defentsan esperientzia handia daukaten aholkularitza juridiko-ko zerbitzuak dituzte, eta, beraz, beraien partaidetzak alde bate-ra uzten du aholkularitzan espezializatutako taldeak dituzten enpresei bakarrik aurre eginez gero izango litzatekeen indar-desoreka.

Hori dela eta, erakunde mota hauen laguntza izatea beti gomendagarria bada ere, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesen defentsarako ordezkari eta partaidetzaren bide legez onartuak direlako, are gomendagarriagoa da epaitegieta-



ra jotzeko erabakia hartuz gero.

Gure ustez, bide honek defentsa osoagoa eskaintzen die kontsumitzaileei, eskubideen urraketa jasan duten kasuetan; izan ere, sarritan, kontsumitzaileek uko egin diote hori erabiltzeari, bide juridikoak normalean planteatzen dituen kostuak eta arazoak saihestearren.

Bizitza-aseguruen erregistroa

Joan den ekainaren 19an hasi zen lanean, Estatu Espainolean, Bizitza-aseguruen Erregistroa. Erregistroa Justizia Ministerioaren menpeko erakundea da, eta estalduraren baten onuraduna izan daitekeen edozein pertsona joan daiteke bertara hori egiaztatzen, senidearen edo hurrekoaren heriotza gertatu eta 15 laneguneko epea igaro ondoren, interes legitimoa dagoela adieraziz.

Erregistro honetan, oraingoz, ez dira sartu kreditu txarteletan lotutako aseguruak, oso kopuru handia baita; hala ere, aurreikuspenen arabera, datorren urterako sartuta egongo dira.

Erregistro honetara jotzeko, titularraren heriotzaren ziurtagiri lite-

rala aurkeztu behar da, eskabideari dagokion inprimakia bete behar da eta 3 euro pasatxoan ezarrita dagoen tasa ordaindu behar da.

Eskabidea Madrilgo erregistrora bidali behar da, eta erantzuna postaz jasoko da, gehienez 7 eguneko epean; behin erantzuna esku artean daukala, eskatzailea aseguru-konpainietara joan ahal izango da, polizen onuraduna den ala ez jakiteko.

Datuak 5 urteko epean egongo dira eskuragarri, titularraren heriotza-egunetik zenbatzen hasita.



Etxebizitzetxei buruzko aholkularitza

Elkargoak erantzun

Bidali zure aholku-eskaerak honako helbidera: Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa. Juan de Ajuriagerra kalea, 9-7.
48009 Bilbao edo posta elektronikoaren bidez, beste honetara: eke@arrakis.es

Kontratuan ur kontsumoaren jasanarazpen-klausula dago; komunitatearen gainontzeko gastuak salbuestea dakar horrek? Kontratua 1983an sinatu zen.

Kontratua 1985eko maiatzaren 9a baino lehen sinatu bazen, kontua da interpretatzea ea ur kontsumoa soilik ordaintzeko betebeharrak komunitatearen gainontzeko gastuak errentatzailearen kontura izateko berariazko ituna dakarren. Erantzuna ez da erraza, eta, jakina, interpretazio desberdinak izan ditzake; dena dela, gure irizpidea da aldean asmoa edozein zerbitzu eta horniduraren ordainketa egitetik salbuestea izan zela, urarena izan ezik. Hori horrela, Hiri Errentamenduen Legeko bigarren xedapen iragankorreko 10.5 paragrafoarekin bat etorritik, ezin izango da beste gasturik jasanarazi.

1985eko maiatzaren 9aren osteko kontratuei dagokionez, Legeak ez du ezer ezartzen; beraz, kontratuko klausulak bete beharko dira, eta horietan ezartzen bada errentariak ura baino ez duela ordaindu behar, ezin da beste ezer jasanarazi.

Zerbitzuak eta hornidura jasanarazteko, banakatu egin behar dira komunitate gastuak?

Jabe errentatzaileak ziurtagiri bat eskatu behar dio komunitateari, presidenteari eta/edo administratzaileari, jasanarazten diren aurrekontu onartuaren partidak jasotzeko (Hiri Errentamenduen Legeko bigarren xedapen iragankorreko 10.5 paragrafoarekin bat etorritik), esate baterako: berogailua, atezaintza, igogailua, etab. Gainontzekoak, hau da, administrazioa, aseguruak, gastu orokorrak, erreserba fondoak, etab., ezin dira jasanarazi, alokatutako pisuaren edo lokalaren onura zuzenetik kanpokoa delako. Ziurtagiri hori nahikoa da dagokion osagarria pasatzeko, nahiz eta aurrekontu bati buruz hitz egin eta ez gastu zehatzei buruz, eta, gainera, ekitaldi ekonomikoaren amaieran aparteko partida bat pasatu ahal izango da edo dirua itzuli ahal izango da, aurreikusitako zuzkidura kontzeptu horiengatik egindako gastuak baino handiagoa edo txikiagoa bada. Kargua jakinarazpenaren hurrengo hiletik aurrera baino ezin izango da egin, aipatutako frogagiriarekin batera.

Galdara balkoi indibidualaren horman jar daitezke?

Pisu edo lokal bakoitzaren muga barruan, jabeak egoki irizitako lanak edo konponketak egin ditzake, betiere, elementu komunei eragiten ez badiete, Jabetza Horizontalaren Legeak ezartzen duenaren arabera.

Hori esanda, balkoiko horman berogailuaren galdara indibiduala jartzei dagokionez, ez dugu eragozpenik ikusten, baldin eta ez badio kalte handia egiten eraikinaren estetikari edo eraikinaren segurtasunari, Jabetza Horizontalaren Legeko 7.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, edo ez badakar jarduera eragozgarri, osasungaitz, kaltegarri, arriskutsu edo legez kanpikorik, aipatutako legerian ezarritakoaren arabera.

Jabeen batzar bakar batean bi urteko kontuak onar daitezke?

Jabetza Horizontalaren Legeko 16.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, "Jabeen Batzarra gutxienez urtean behin bilduko da aurrekontuak eta kontuak onartzeko...". Kontuak urtekoak izan behar dira eta horrela onartu behar dira; ondorioz, gure ustez, bi urtean bilerarik egin ez arren, bi kontu desberdin aurkeztu behar dira.

Era berean, eta beste edozein akordiotan gertatzen den legez, bi urteak batuta aurkezten badira eta horrela onartzen badira, ez dago inolako arazorik eta erabakia baliozkoa izango da ondorio guztietarako.